

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2019-2020

**JARDUERA FISIKOA NATURA INGURUNEAN: EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZARAKO GORPUTZ HEZKUNTZAREN PROPOSAMENA**

EGILEA: JULEN IPIÑA ZULUAGA

ZUZENDARIA: FCO JAVIER RUIZ DE ARCAUTE GRACIANO

Data, 2019eko URTARRILAREN 20a

AURKIBIDEA

0. JUSTIFIKAZIOA	3
1. SARRERA.....	5
2. 236/2015 DEKRETUAK NATURAKO JARDUEREKIN DUEN LOTURA..	7
2.1. KOMPETENTZIAK	7
2.2. GORPUTZ HEZKUNTZAREN ETAPA HELBURUAK.....	11
2.3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK.....	13
2.4. EDUKIAK	14
2.5. METODOLOGIA	15
3. UNITATE DIDARTIKOEN JUSTIFIKAZIOA ETA GARAPENA	24
3.1. DEKRETUAREN ERREFERENTZIAZKO ELEMENTUAK.....	27
3.2. UNITATE DIDARTIKOEN GARAPENA.....	34
4. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA PERTSONALA.....	47
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	49
6. ERANSKINAK	51

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA: Espainian enpresek kirolarekin duten lotura	5
2. IRUDIA: Espainian federatutako kirol lizentziak	5

0. JUSTIFIKAZIOA

Gorputz Hezkuntza espazio eta testuinguru aldetik ezberdintasun gehien duen irakasgaia izan daiteke: patioan, gimnasioan, parkean edo frontoian gara daitezke saioak, gainerako irakasgaiak, normalean, gela barruan jarraitzen direlarik. Ingurune ezberdinen sorta hori aprobetxatzeko joera egoten da, espazioaren ezberdintasun horrek ikaslearentzat motibazioa ekar dezakelako. Baina, askotan, inguru berri horietan jorra daitezkeen ekintzak prestatzeko ezjakintasuna agertzen da. Horretarako, lan honetan, heziketa helburuarekin natura-ingurunera egokitutako jarduera fisikoa planteatzen da, mota horietako saioak prestatzeko informazioa batuz eta unitate didaktiko ezberdinak proposatuz.

Naturan burutzen den jarduera fisikoak hainbat abantaila izan ditzake, jarraian ikusiko den moduan, baina natura eta jarduera fisikoa kontzeptuak batera entzutean "arriskua" ere etortzen zaigu burura. Gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako (DBH) proposamen bat egin nahi denez, adin horietan agertu daitezkeen zailtasunak kontutan izan dira.

Lanaren hasierako zatian, natura-jarduera eta hezkuntzaren arteko lotura aztertzen da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak (236/2015 Dekretua) natura-jardueren inguruan zer esaten duen eta gai horretako unitate didaktikoak sortzeko ematen duen informazioa batzen da. Bigarren zatian unitate didaktikoak ageri dira. DBHko maila bakoitzerako bana sortu da, hots, lau. Horietan kurtso bakoitzak dituen eduki, helburu eta ebaluazio irizpide ezberdinak kontutan hartu dira, beraz, gaur egun indarrean dagoen 236/2015 Dekretua kontutan izan da.


Bestalde, aipatzekoa da, lan honetan batzen den informazio guztia eta sortu den produktua (unitate didaktikoak) benetan erabiltzekoak direla. Gorputz Hezkuntzako irakasle naizenez, edozein ikastetxetan

aurrera eramateko moduan prestatuta dago, zentroaren eta ikasle-taldeen berezitasunei egokitu ostean.

1. SARRERA


Azkenaldian, natura-jarduerak indar handia hartu dute gure ingurune sozialean. Talde kirolek betidanik izan duten arrakastaz aparte, bestelako kirolek garrantzia hartu dute, eta horien artean natura-jarduerak kokatzen dira. Espainiako Kirol Ministerioak 2017ko kirol estatistiken urtekarian argitaratu duen hurrengo figura honetan ikusten den bezala Espainian enpresek kirolarekin duten lotura igo da azken urte hauetan.

1. IRUDIA. Espainian enpresek kirolarekin duten lotura. (Espainiako Kirol Ministerioa, 2017)



Bestalde, mendi jarduerak Espainia mailan duten garrantzia handia da. Arestian aipatutako dokumentuan ageri den bezala, federazioei dagokienez dauden kirol lizentzien artean, mendi ingurukoak bostgarren postuan kokatzen dira.

2. IRUDIA. Espainian federatutako kirol lizentziak. (Espainiako Kirol Ministerioa, 2017)



Aipatutako hori guztia gure ingurunean aztertzea komenigarria izango da. Euskal Herrian asko dira dauden natura baliabideak. Alde batetik, gure inguruan dagoen geografia dela eta, aukera ugari daude mendian hainbat ekintza egin ahal izateko. Gainera, baliabide sozial eta kultural aldetik, federazio eta klubak ere asko dira. Aipatutako hauek informazio eta laguntza ugari eskaintzen dute, naturako jarduerak era seguruan eta talka ekologiko gitxiagorekin praktikatzeko. Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) bere baitan hartzen dituen 47 federazioen artean, Euskal Mendizale Federazioa (EMF) dago. EMFk 263 klub batzen ditu guztira; 58 Araban, 109 Bizkaian eta 96 Gipuzkoan. Beraz, datu hauek kontuan izanda, esan daiteke, Euskal Herrian dauden natura-jardueren baliabidean ugariak direla.

2. 236/2015 DEKRETUAK NATURAKO JARDUEREKIN DUEN LOTURA

Gaur egungo 236/2015 Dekretuak hezkuntzan edo zer planifikatzeko faktoreak argitzen ditu. Bertan, hainbat atal daude. Kasu honetan, naturako jarduerak planifikatu eta aurrera eramango direnez, faktore jakin horiek natura ingurunean praktikatzeko diren ekintzekin duten lotura ikusiko da atal honetan.

2.1. KONPETENTZIAK

Gaur egungo gizartean norbanakoak momentu konplexuei aurre egiteko egoeran aurkitzen dira. Hori aurrera eramateko, zein konpetentzia inplikatu beharko lirateke? Konpetentzia horiek gazte eta helduak behar bezala prestatuta dauden edo ez ebaluatzeko tresna moduan erabil daitezke. Era berean, hezkuntza sistemarako zehar konpetentziak identifikatuko dira, baita bizitzako ikasketa prozesurako ere.

Ikasleen irteera-profil orokorrak ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean zer oinarrizko konpetentzia izan behar dituen zehazten du. Horretarako, oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumak ezartzen duen 236/2015 Dekretuko 6. artikulua agintzen duen moduan, bi motatako konpetentziak aurki ditzakegu: zehar- eta diziplina barneko konpetentziak. Gainera, horiek aipatzea garrantzitsua da, konpetentzietan oinarritutako pedagogia erabiliko dugulako sortu diren unitate didaktikoetan.

ZE HAR KONPETENTZIAK

Aipatutako lehenengo multzo horretakoak bizitzako esparru eta egoera guztietan (esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan) arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, diziplina-arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta

erabiltzen dira. Definitutako zehar-kompetentzia horiek hurrengo hauek dira:

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitaletako kompetentzia.

Natura-jarduerak duten berezko ziurgabetasunak hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren inportantzia berresten du. Bertan aurki daitezkeen arrisku, desorientazio edo bestelako faktoreek etengabeko komunikazio batean egon behar dugula dakar. Horretaz aparte, etengabeko komunikazio horrek albokoaren zaintza ere ekartzen du, natura ingurunean oso garrantzitsua delarik. Gainera, naturan aurkitzen duten seinaleak ulertzea bertan mugitzeko erraztasuna emango digu, hitzik gabeko komunikazioaren barruan sartu daitezkeen heinean.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

Proposatuko diren unitate didaktikoak arazo-egoeretan oinarrituko dira. Aurrerago azalduko den moduan, problema bat egongo da unitate didaktiko bakoitzaren hasiera, eta horri interbidea bilatu beharko diote, saiakera ezberdinekin. Naturan erronka ezberdinak ere aurkitzen direnez, kompetentzia hau garrantzitsua da. Haien kabuz bilatu beharko dute bidea askotan, beraz, autonomiarekin ere lotuta doa puntu hau.

3. Elkarbizitzarako kompetentzia.

Elkarbizitzarako kompetentzia hau hurrengo atalean egongo diren diziplina baitako kompetentzien artean dagoen zazpigarren kompetentziarekin lotuta dago. Azken finean, naturan egiten diren jarduerak natura bera errespetatuz egin behar dira. Elkarbizitza baten barruan sartuta gaudenez, horrek horrela jarraitzeko bertan dauden espazioak zaintzea eta ondokoa kontuan hartzea oso garrantzitsuak izango dira.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.

Natura-jardueretan agertzen diren arrisku, ezjakintasun eta bestelako zalantzei aurre egiteko espiritu ekintzailea agertzea oso garrantzitsua izango da.

5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Proposatuko diren unitate didaktikoak ikasleen aisialdirako baliagarriak izan daitezke, hau da, egingo diren ekintzak haien denbora librean erabilgarriak. Batzuetan, ikasle batzuk ez dira inoiz mendi edo baso inguruan ibili. Gai hau Gorputz Hezkuntzan eman ezkeru, natura-inguruan egiten duten jardueren gainean ikasleengan interesa sortzen da.

DIZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIAK

Bestalde, diziplina baitako konpetentziak daude eta hauek bizitzako esparru eta egoeretan (esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan) arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, eta, haietan, diziplina-arloren bateko berariazko baliabideak erabiltzen dira. Diziplina baitako konpetentziek diziplina-matrize bat dute oinarri, eta arloen berezko arazo-egoeren bitartez eskuratzen dira; halere, badute transferentzia-gaitasunik eta funtzio anitzekoak dira, diziplina-arlo batekin edo batzuekin lotutako arazo-egoerak konpontzeko balia baitaitezke. Hurrengo hauek izango lirateke:

- 1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**
- 2. Matematikarako konpetentzia**
- 3. Zientziarako konpetentzia**
- 4. Teknologiarako konpetentzia**
- 5. Arterako konpetentzia**
- 6. Konpetentzia motorra**
- 7. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia**

Ikusitakoen artean, seigarrenak lotura zuzena duela jakinik, zientziarako eta gizarterako eta herritartasunerako kompetentziek ere izan dezakete natura-jarduerekin lotura. Lehenengo horretan, geografian islatzen diren hainbat faktore sar daitezke naturan burutuko den jarduera batean: geologia, mapak, etab. Bestalde, aipatutako bigarren kompetentzia, natura zaintzearen garrantziarekin lotu daiteke. Azken finean, gure inguruak ondo tratatzea eta baloratzea beti izango da inportantea eta kompetentzia horretan horri buruzko kutsua legoke.

Beraz, ikasgai bakoitzari diziplina baitako kompetentzia bat dagokio. Kasu honetan, aipatutakoen artean, Gorputz Hezkuntzari dagokion kompetentzia hori Konpetentzia Motorra da eta horrela definitzen da 236/2015 Dekretuan: "Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalen ongizatea lortzen laguntzeko". Diziplina-baitako kompetentzia guztien moduan, kompetentzia motorrak bere osagaiak ditu, lau dira, baina lehenengo biek dute natura jarduerekin harremana:

- a) Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko. Naturan era autonomoan ibiltzea esperientziarekin bat datorren faktorea izan daiteke. Natura ingurunean orientatzen ikastearekin batera etor daiteke esperientzia hori, beraz, natura-inguruan era autonomoan ibiltzeko aukera izatea izango da unitate didaktikoen helburu nagusienetako bat.**
- b) Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko.**

Arestian aipatu bezala, Euskal Herriko kultura mendizaletasuna sartzen da, beraz, osagai honetan aipatzen den kultura-nortasun hori sendotzea oso garrantzitsua izango da bertako kulturako bermatzeko eta horien balioaz ohartzeko.

2.2. GORPUTZ HEZKUNTZAREN ETAPA HELBURUAK

Gorputz hezkuntzan Heziberri Dekretuan agertzen diren helburuak asko dira, hamar hain zuzen ere. Baina aipatutako arloarekin eta naturako jarduerekin eta horrek dakarren antolakuntzarekin lotzen diren helburuak hurrengo lerroetan ageriko direnak dira. Ikus daitekeen moduan, hamarretik bost dira aukeratuak izan diren helburuak, horiek natura jarduerekin duten lotura kontutan izan eta gero.

3) Euskal Herriko inguruneak, bai erakundeen aldetik bai geografiaren aldetik, jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak bai banaka bai taldean aztertzeke, esperimintatzeko, diseinatzeke, antolatzeko eta garatzeko eskaintzen dituen aukerak identifikatzea, baliatzea eta balioestea, eta aldi berean, jarduera fisikoaren beste adierazpen batzuetara hurbiltzea.

Aukeratutako lehenengo helburu honetan Euskal Herriko ingurunea eta geografia ageri dira, bertan ikasleek bizitzeko dituzten aukera ezberdinak aipatuz. Beraz, esan daiteke, lehenengo helburu horren aukeraketaren zergatia argia dela. Proposatuko diren unitate didaktikoak Gorbeiako Parke Naturalaren inguruan kokatutako zentro baterako pentsatuta daude, beraz, esan daiteke, UD guzietan helburu hau izan daitekela oinarritzat hartzen dena.

4) Euskal Herriko jolas eta kirol-tradizioak ezagutzea, interpretatzea eta haietan parte hartzea, eta beste kultura batzuetakoak ere aztertzea eta haien berri jakitea, bai eta haiekin lotutako askotariko jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak praktikatzeko ere, herrialde bakoitzeko identitatea eta kultura-balioak ulertzeko eta baieztatzeke, eta aldi berean aberastasuna eta inklusioa dakartela ulertzea eta balioestea.

Laugarren helburuaren agerpenaren arrazoia hurrengo hau izango litzateke. Euskal Herriaren ingurua eta geografia direla eta, mendizaletasun handia dago gure inguruan. Natura medioan egiten diren jarduerak mota askotakoak dira, beraz, euskal tradizioen barruan sartzea bidezkoa da. Horrenbestez, bigarren helburu horrek horri buruz hitz egiten du, euskal tradizio horien praktika eta horren inguru osoa ezagutzea eta barneratzea.

7) Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak egitean lesioak edo larrialdi-egoerak gertatuz gero eman beharreko lehen laguntzak identifikatzea eta baliatzea, teknika egokiak erabiliz zaurituaren nahiz egoeraren hasierako balioespena egiteko, eta ezarritako protokoloak betez lehen esku-hartzerako oinarrizko teknikak eta bizi-euskarrikoak aplikatzeko, gerora laguntza emateko egin beharreko esku-hartzeak bideratzeko eta errazteko.

Natura jardueretan ingurunea ezegonkorra izaten da, hau da, ikastetxe, gimnasio edo patio baten dauden arriskuez aparte, natura bestelakoak aurki ditzakegu. Eguraldia, zona ezezagutzea, naturaren berezko arriskua eta bestelako faktoreak kontuan hartzekoak dira. Aipatutakoarekin justifikatu daiteke hirugarren helburuaren aukeraketa. Inguru ezegonkor horrek ekar ditzakeen arazoan aurrean ahalik eta arinen eta behar den moduan esku hartzea oso garrantzitsua delako beti.

8) Jolas-jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak modu autonomoan eta sistematikoan planifikatzea, antolatzea eta praktikatzea, kontuan hartuta banakoen nahiz taldearen ezaugarriak, interesak eta beharrak, bizi-kalitatea areagotzeko, oreka emozionala lortzeko eta komunikazio eta adierazpen-trebetasunak hobetzeko helburuarekin.

Txostenean aurrerago ikusiko den moduan, unitate didaktikoetan ikasleen parte hartzeak garrantzia handia izango du, beraz, laugarren helburu honek pisua dauka alderdi horri erreparatzen badiogu; "kirol-

jarduerak modu autonomoan eta sistematikoan planifikatzea, antolatzea eta praktikatzea". Bestalde, helburu horren bigarren partean ageri dena ikasgai zein ariketa guztietan kontuan hartzeko zerbait da, hots, oreka-emozionala eta komunikazioak, adibidez, berebiziko garrantzia dute ikasleen arteko edozein motatako planifikazioetan.

10) Jolas-jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egitean balio pertsonal eta sozial jakin batzuk erakustea, oinarri dutenak errespetua, pentsamendu autonomoa, sortzailea eta ulerkorra, erantzukizuna, ahalegina, parte-hartzea, eta ingurune fisikoarekiko eta kulturalarekiko sentsibilitatea, agerian jarritz herrialdeko balioekin bat datorren mugimenduaren kultura bat.

Azkenik, bostgarren helburua daukagu. Bertan "ingurune fisikoarekiko eta kulturalarekiko sentsibilitatea" hitzak agertzen dira. Naturan edozer egitean ingurunearekiko errespetua bultzatzeak garrantzia handia du, horren ondorioz, naturan ohitura egokiak hartzea bultzatzea eta horien kontzientziazioan laguntzea beti aberasgarria den zerbait izango da.

2.3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideek, izenak esaten duen moduan, ikasleak ebaluatzeko tresnak dira. Ebaluazio irizpideak edukien arabera finkatzen dira, horiek betetzeko konpromezua hartzen delako hasiera batetik. Beraz, lortutako hori neurtzeko modua atal honetan ikusiko da. Horretarako, DBHn dauden ebaluazio irizpide guztiak eta horien lorpen adierazleak aztertuko dira eta gure kasuarekin (naturako jarduerekin) zerikusia dutenak ageriko dira.

Bestalde, lorpen adierazletzat zeintzuk hartzen diren adieraztea garrantzitsua izango da. Lorpen adierazleak ebaluazio irizpideen desgloseak direla esan daiteke. Pentsatu ohi da, ebaluazio irizpidea izan behar dela kontutan, baina Dekretu berri honetan lorpen adierazleek dute garrantzi gehiago, horien betetzeak ebaluazio irizpidea betetzea ekarriko duelako. Gogoratu behar da, 236/2015 Dekretuan ageri diren

ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleak proposamenak direla eta kasuan kasuko irizpide berriak sor daitezkeela, testuinguruan, ikasleengan, gaiarengan edota bestelako elementuetan oinarritu daitezkelarik.

Horrenbestez, arestian komentatu bezala, hurrengo hauek dira aukeratutako ebaluazio irizpideak eta horien lorpen adierazleak mailaz maila. Denak natura-jarduerekin lotuta daude eta unitate didaktikoetan (UDetan) agertzen direnak dira. Hasierako ebaluazio irizpideak natura-jarduerekin baino jarrera eta komunikazioarekin dute lotura zuzenagoa. Esan bezala, UDetarako aukeratutakoak direnez, natura jarduerekin lotutakoak bakarrik aukeratzea ez litzateke errealia izango.

236/2015 Dekretutik aukeratutako ebaluazio-irizpide eta edukiak (hurrengo atalean) gaiari lotuta doazenak izateaz aparte, osasunari buruz hitz egiten dutenak ere proposatu dira. Unitate didaktikoetan osasunaren trataera emango da, baita gai honen gainean ikasleen trataera nolakoa den ere, hau da, ikasleek nola erantzuten duten arrisku edo osasuntsuak ez diren egoeretan. Bestalde, aukeratutako guztiak natura-ingurunean ematen diren jarduera ezberdinekin eta bertako giza-harremanekin lotuta egongo dira. Ekintzaren eraginkortasuna bilatuko da aukeraketa horrekin. Geroago, unitate didaktikoak baino lehenago ikusiko da aukeraketa hori.

2.4. EDUKIAK

Unitate didaktiko bat planifikatzen denean edukiak finkatzen dira. Horrekin unitate didaktikoan ageriko diren dinamikekin zer jorratuko den adierazten da, eta eduki horiek betetzeko konpromezua hartzen da momentu horretan. Edukiak lau multzotan banatuta daude. Lehenengoari dagokionez, eduki komunak izango lirateke, hau da, arlo eta ikasgai guztietan berdinak diren oinarritzko zehar-kompetentzien arabeko edukiak. Bigarrena, jarduera fisikoa eta osasuna da. Hirugarren eduki multzoa, berriz, gorputz-adierazpena eta

komunikazioa. Eta, azkenik, laugarren eduki multzoa, mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza da.

Beraz, naturako jardueretan kontutan hartzeko edukiak finkatuko dira multzoka, unitate didaktikoak baino lehenago ageriko direnak. Hasieran, eduki komunak ageriko dira, bestalde, ikasmailaz-ikasmaila edukiak multzoka bereiztuko dira.

Lehenengo eduki multzoaren harira, proposatuko diren unitate didaktikoetan ikasleen haien kabuz bilatu beharko dute informazioa. Burutu eta sortuko dituzten natura-jardueretan era egokian aritzeko, beharrezkoa informazioa aukeratu eta beharrezkoa ez dena alboratzea ere baloratuko da. Bestalde, talde txikietan arituko dira saio askotan, horregatik elkarlanean aritzeari buruz hitz egiten duten edukien aukeraketa.

2.5. METODOLOGIA

Atal honetan, alde batetik, 236/2015 Dekretuak zein metodologia proposatzen duen aztertuko da. Eta bestetik, (Blázquez et al., 2016) aipatuko da, metodologia aldetik egon daitezkeen barietateak adierazteko intentzioarekin.

Lehenik eta behin, 236/2015 Dekretuak kompetentzien bidezko metodologiari buruz dioena ikusiko da. Metodologia ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia izateaz aparte, irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien aurrean egindako hautaketen emaitza eta sintesia da. Arestian aipatu bezala, kompetentzien transmisioa egunerokotasunean aurkituko diren egoerei aurre egiteko modua izango litzateke, beraz, hezkuntzak ezagutzen transmisio hutsetik harago joan beharko luke eta bizitzarako hezi behar izanarekin. Horretarako modu egokiena, kompetentzien bidezko metodologia dela aldarrikatzen du 263/2015 Dekretuak. *"Kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegian batera aplikatu daitezke ezagutzari buruzko hainbat teoria, baina konstruktibismoa eta soziokonstruktibismoa dira ikuspegi horri hobekien egokitzen zaizkien teoriak; izan ere; kultura- eta gizarte-egoera guztietan moldatzeko*

prestakuntza eskuratuko baldin badu, bere bizitzaren eta ikaste-prozesuaren protagonista izan behar du ikasleak".

Konstruktibismoa edozeinen jardunaren fruitua izango litzateke, hau da, norbanakoak edozer dela ere eginda zerbait lortzen duela. Ez da kanpoko objektuen harrera pasibo bat, subjektuak dakienaren gainean ezagutzak eta esperientziak gehituko ditu, bizi izan dituen bizipenen ondorio bezala. Beraz, aipatutakoa kontutan izanda eskolan ikasteko, hiru dimentsio proposatzen dira 236/2015 Dekretuan:

- i. Dimentsio soziala.** Gainerako ikasleekiko eta irakaslearekiko harreman sozialak antolatzeko alderdiek eta irakaslearen kontrolpean egiten diren irakaskuntza-jarduerek osatzen dute dimentsio hau.
- ii. Dimentsio konstruktibista.** Ikaskuntza antolatzearekin lotutako alderdiak dira. Horien bidez, ikasleak, lehendik dakienetik abiatuta, bere ezagutzak eraikitzen ditu, lehendik dituen ezagutzen eta eskuratzen dituen ezagutza berrien arteko harreman dialektikoan.
- iii. Dimentsio interaktiboa.** Eskolan ikasten dena antolatzeko alderdiak dira. Horien bidez, ingurune fisiko eta sozialarekiko interakzio-egoerak moldatzen dira, ikasi beharrekoaren ezaugarriei erreparatuta. Bestela esanda, ikaskuntza ez dute diziplina baitako edukiek erabakitzen, eta bai ikasleak zer egoeratan erabiltzen dituen zereginak ebazteko jakintzak.

Horrenbestez, ikusitakoa martxan jartzeko, 236/2015 Dekretuak ikuspegi metodologikoen ezaugarri komunak proposatzen ditu. ***"Irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien artean, kompetentziaren arabera ikuspegiaren alderdi bereizgarri hauek nabarmentzen ditugu, metodologiaren gaineko erabakietan eragiten duten aldetik***".

- Ekintza kompetenteak egiteko, modu integratuan erabili behar dira eskura dauden baliabideak, arazo-egoerak ebazteko.
- Eskolaren asmo nagusia ez da informazioak eta jakintzak transmititzea, eta bai oinarrizko kompetentzien garapena eragitea.

- **Baliabideak dira adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak, baina ezinbesteko dira arazo-egoerak konpontzeko.**
- **Oinarrizko konpetentziak garatu ahal izateko, egoera errealak hartu behar dira aintzat, eta benetako jarduerak proposatu; hala, eguneroko bizitzako arazo nagusiekin lotu behar da ezagutza.**
- **Oinarrizko konpetentzien ikaskuntza esanguratsua izango baldin bada, ikasleak gogoz parte hartu behar du ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan.**
- **Konpetentziak lantzeko prozesu horretan, ikaskuntza tutorizatzea da irakaslearen egitekoa; hau da, ikasteko prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, estimulatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea.**

Aipatutakoa laburbilduz, 236/2015 Dekretuak konpetentzien bidezko metodologia konstruktibista proposatzen du. Horrek aurrezagutzen gainean ezagutza berriak pilatzea dakar, baina ez subjektu pasibo moduan, baizik eta egoera ezberdinetan izandako bizipenekin aktiboki parte hartuz. Bestalde, ezagutza horiek arazo-egoeren konponketarekin lortzea da ideia, hau da, ikasleei arazo-egoerak planteatu eta edukien bidez horiek ebaztea. Beraz, edukiak garrantzia izan beharko dute, arazo-egoera horien irtenbidea markatuko baitute. Proposatuko diren unitate didaktiko guztietan esandakoa beteko da, hau da, hasieran arazo-egoera bat proposatuko da eta horri irtenbidea bilatuz ezagutzak berenganatuko ditu ikasleak.

Arestian aipatu bezala, bestalde, Blázquez et al. (2016) artikuluan konpetentzien bidezko metodologiari buruz zer esaten den azalduko da hurrengo lerroetan. Blázquezek (2016) konpetentzien ikaskuntza emateko ez du metodo espezifiko bat planteatzen, azken finean, egoera guztiak ezberdinak direlako eta denetan berdin jokatzeko akats bat izango litzatekelako.

Esan bezala, Blázquezek (2016) ez du metodologia finko bat planteatzen, eskola bakoitzeko testuingurua ezberdina delako eta ezin delako beti metodologia batean irakaskuntza oinarritu. Baina, kompetentzien ikaskuntza emateko baldintza batzuk aipatzen ditu, hurrengo lerroetan irakur daitezkeenak.

- **Osotasuna.**

Orokorrean, erabili beharko den metodologia globala izan beharko da, arazoen konponbidea nabarmentzen, ikaskuntza berriak deskubritzen, erlazio berrien eta edukien arteko interkonexioa ezarriz eta ezagutza esanguratsu zein motibatzailea sustatzen dituen zereginak planteatuz.

- **Esanguratsutasuna.**

Helburua ikasleak arazoei konponbidea aurkituz gaitasuna garatzea da, aurre-ezagutza eta esperientzietatik abiatuz. Horretarako, ezagutza eta gaitasun horiek zeintzuk diren finkatu beharko da, horren ostean, zein esperientziek ikaskuntza esanguratsua emango duten ezartzeko.

- **Funtzionaltasuna.**

Kompetentzien bidezko irakaskuntzan planteatu beharko diren egoerak egiten ari direnaren gainean hausnartzeko eta analisia egitekoak izan beharko dute. Hau da, ikasleak, modu autonomoan, egiten ari denaren gainean hausnartu beharko du, horren alde onak eta txarrak identifikatuz.

- **Autonomia**

Irakaskuntzan gehien jarraitzen diren helburuak ikasleak era autonomoan aritzea, independenteak izatea eta ikasten ikasteko kapazak izatea dira. Kompetentzien ikaskuntza sustatu nahi bada, ikasleak berak jakin beharko du ikaskuntza horiek emateko zeintzuk diren bide egokienak.

- **Inplikazio kognitiboa**

Ikasleentzat ikasten ari direna erronka bat suposatu behar du. Garrantzitsua da ikasleek beraien egoera identifikatzea, horrela

egunerokotasunera transferituko dute ikasitakoa eta esperientzia berrietan ikasitakoa aintzat hartzeko kapazak izango dira.

Beraz, ikusi daitekeen moduan, autore honek planteatzen dituen bost oinarri berebizikoak dira ikasketa baten metodologia zehazteko. Azken finean, bost horietatik batek huts egin ezker, esan daiteke, ikasleak ez duela ikasten edo barneratzen.

ARAZO EGOERETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA

Jarraian proposatuko diren unitate didaktikoak arazo egoeretan oinarrituta egongo dira, hau da, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran arazo bat aurkeztuko zaio ikasleari, hori ikasketa prozesuaren bidez konpontzeko. Baina, lehenik eta behin, metodologia horrek zer darabilena ezagutu beharko da, baita arazo egoera bat aurkezteak ikaslearengan zein eragin duen ere.

Arazo egoeretan oinarritutako metodologia (AEoM) irakasleek kontu handiz aukeratutako arazo bilduma baten oinarritzen da, bertan ageri den material ikasgai ezberdinak inplikatur, eta horrenbestez, diziplinartekotasuna sustatuz. Arazoak sinpleak izaten dira, inguruan begi bistaz ikusi daitezkeen gertaerak eta erronka eta eztabaida inplikatzeko dutenak. Ikasleen betebeharrak arazo horien gainean eztabaidatzea eta hausnartzea izango da (Norman eta Schmidt, 1992)

Barrowsek (1986) AEoM hurrengo bost helburuetan orientatzen dela adierazi zuen:

- 1. Testuinguru klinikoetan erabiltzeko ezagutza egituratzea.**
- 2. Arrazoiketa klinikoetarako prozesu eraginkorrak garatzea.**
- 3. Ikasketa-autozuzendua trebetasuna garatzea.**
- 4. Ikasketarako motibazioa.**
- 5. Taldean taldekideekin lan egiteko gaitasuna garatzea.**

AEoMaren eraginkortasuna aztertzeko Fernández et al. (2006) 2000. urtetik aurrera egindako hainbat lan enpiriko berrikusi zituzten. Bilatu zituzten efektuak hiru alderditan klasifikatuak izan ziren: alderdi

emozionala, alderdi praktikoa eta ikaskuntza alderdia (ezagutza eta trebetasunak).

- ***Alderdi emozionalari dagokionez, aztertutako lanetan, metodologia honen inguruan bai ikasleek eta bai irakasleek duten jarrera inoiz ez da negatiboa izaten. Lan kooperatiboa, arazo errealean erabilera eta parte-hartze aktiboa baloratzen dira. Horretaz aparte, metodologia tradizionalekin konparatuz, ikasteko interes eta motibazio handiagoa zegoela nabarmendu zen.***
- ***AEOM praktikan jartzearen alderdia hartuta, aspektu negatibo batzuk adierazten dira. Denbora, esfortzu eta betekizun handien behar izanak zehazten du puntu negatibo hori.***
- ***Hirugarrenez eta azkenengoz, ikaskuntza alderdiari dagokionez, metodologia honen bidez, tradizionalekin konparatuz, hurrengo aspektu hauek gehiago garatzen dira: arazo egoerak konpontzeko trebetasuna, ikaskuntza autonomia, pentsamendu kritikoa eta gaitasun sozial eta komunikatiboak.***

AEoM zer den eta horren funtzionamendua azaltzean "diziplinartekotasuna" hitza azpimarratu da, kontzeptu horrek kasu honetarako garrantzia duelako. Diziplinartekotasuna, hitzak berak esaten duen moduan, diziplina ezberdinen arteko lotura izango litzateke. Kasu honetan, hau da, hezkuntzan, diziplina ezberdinak irakasgaiak izan lirateke. Hori jakinda, proiektu batean ahalik eta irakasgai gehienek parte hartzea izango litzateke diziplinartekotasunaren helburua, irakasgai bakoitzak gaiaren inguruan eman ahal duena proiektura gehituz eta uneoro horien arteko loturak eginez. Sortu diren unitate didaktikoetan diziplinartekotasuna jorratuko da, unitate didaktiko bakoitzean irakasgai bakoitzak zer landuko duen islatuz.

Aipatu diren irakaskuntza metodoak proposatuko diren unitate didaktikoetan erabiliko dira. Baina, bestalde, badaude, natura inguruan garatzen diren jarduerak aurrera eramateko bi metodologia, bata esperientziaren pedagogia izanik, eta bestea, abenturako pedagogia.

2.5.1. Esperientziaren pedagogia.

Kurt Hahn (1886-1974), natura inguruan jarduera fisikoaren erabilera sustatzen zuen pedagogo alemaniarra izan zen, mota horietako ekintzak eskola eta instituzio ezberdinetan txertatuz. Garai hartako hezkuntza-sistemak generazio berriak galbideratzen zituela ikusi eta gero, Hahnek, bere hezkuntza-filosofia sortu zuen. Aipatutako ustelkeria horren konponbide moduan *Erlebnispädagogik* planteamendu pedagogikoa sortu zuen, euskarara itzulita, esperientziaren pedagogia esan nahi duena. Proposamen horrek lau oinarri ditu, hurrengo lerroetan aipatuko direlarik (Pérez, Caballero eta Jiménez, 2009):

- **Entrenamendu fisikoa ariketa atletikoen eta natura-jardueren bitartez.**
- **Espedizioa: egun ugaritako oinezko ibilbide bat, non ikasleek nekeari eta ardurei aurre egin behar dioten.**
- **Proiektua: ekintza tematikoa eta denboran mugatutako eduki didaktiko-artistikoekin proiektu bat burutzea.**
- **Besteekiko zerbitzua: Hahnen oinarri garrantzitsuena. Pedagogoak, Alemania osotik (eskualdeka), lehen sorospenen atal bat sortzen du, itsasoan, kostan eta mendian espezializatua.**

Kurt Hahnen proposamen hau laburbiltzeko eta ondorioztatzeko, esan daiteke, gazteen gizarteratze prozesuan laguntzen duen metodologia bat dela. Gaur egun, hezkuntza munduan, ez da Gorputz Hezkuntza entrenamendu fisiko baten moduan ikusten, baina baditu orainaldian erabili daitezkeen puntu interesgarri batzuk, natura-jarduerari garapenari erreparatuz. Adibidez, ikasleek proiektu bat garatzea oso interesgarria izan daiteke; natura ingurunean ibilbideak eta ekintzak programatzeko eta burutzeko aproposa.

Azkenik, pedagogia hori burutzeko planteatzen duen metodologia gazteen esperientzietatik abiatutako hezkuntzan oinarritzen da. Esandako hau, naturan burutzen diren jolas eta ekintzen bidez emango da, ikasleak, arazo-egoera bat planteatuz, horren konponketa bilatu beharko duelarik. Hemen, 236/2015 Dekretuak planteatzen duen

metodologia ikusten da, non unitate didaktiko bakoitzaren hasieran arazo-egoera bat planteatzen den ikasleek horren irtenbidea aurkitzeko.

2.5.2. Abenturaren pedagogia.

M. Parra eta C. Rovirak burututako irakasle talde baten ondorioz sortu zen pedagogia hau 90. hamarkadan. Natura-jarduerek, aldi hartara arte, transmititzen zituen baloreen kezkaz, hezkuntzan ingurune naturalean egiten den jarduera fisikoa ikusteko modu berri hau proposatu zuten. Pixkanaka-pixkanaka, metodologia honen oinarriak ezartzen hasi ziren, Hahnen planteatutako esperientziaren pedagogia kontuan hartuta. Pedagogia honek gelan burutzeko hainbat baliabide proposatzen ditu, baloreen hezkuntza oinarritzat dutelarik. Baina horietatik garrantzitsuena ikasleen garapen pertsonala eta soziala sailkatzen dute, motrizitate ariketak modu kooperatiboan eta natura inguruan burutuz lortzen dena. Abenturako pedagogia honen helburuak hiru puntutan sailka daitezke (Pérez, Caballero eta Jiménez, 2009):

- Hazkuntza pertsonala babestea humanizazio-prozesu baten sartuz. Poztasun pertsonal eta soziala lortzeko abentura tresna moduan erabiltzea. Pedagogia honek jardutetik ulertzera joatea proposatzen du, burua eta gorputza jartzeaz aparte, egiten diren ekintza guztietan bihotza eta emozioak erabiliz.**
- Gero eta abentura proposamen eta sentsazio konplexuagoei aurre egiteko kapazak izatea: adrenalina gehiagokoak, sentsazioak gehiago kontrolatzekoak, inteligentzia eta emozioen arteko oreka kontrolatzeko gero eta zailagoa izatea, etab. Modu honetan, aurre egitea ikasten dugu eta erronka desberdinen aurrean nola jokatu genukeen imajinatzen dugu.**
- Sentsazio atalase baxuaren gainetik dauden ariketak egitea beti. Horrela, kirolen eta bizitza beraren egunerokotasunaz gozatzen ikasten dugu.**

Pedagogia hau aurretik Hahnek proposatutako esperientziaren pedagogiaren hobekuntza dela esan daiteke. Metodologia honek ikasleen egiten duten horrek beraien bizitzan laguntzea proposatzen du, hau da, egiten duten orok bizitzako esperientzia ezberdinetan laguntzea. Blazquezek (2016) esaten duen esanguratsutasun eta funtzionaltasun horiei lotuta joan daiteke abenturaren pedagogia hau.

3. UNITATE DIDAKTIKOEN JUSTIFIKAZIOA ETA GARAPENA

Jarraian arestian aipatutako informazio guztia kontuan hartuta sortu diren unitate didaktikoak (UD) aurkeztuko dira. Baina lehenik eta behin, konpetentzietan oinarritutako UDak zergatik eta nola sortu diren azaltzea garrantzitsua da, taulak irakurtzean dena ondo ulertzeko.

Lehenik eta behin, proposatu diren jarduera eta saio guztiak Parlebasen (1988) hiru printzipioetan oinarrituta daude. Laburbiltzeko, lehenengo printzipioari dagokionez ez gara gaitasunetatik abiatuko, baizik eta ingurunearen ezaugarrietatik, hau da, egoera motor batetik hastea inguruneak berak ematen duen informazioa aprobetxatuz. Bigarren printzipioarekin lotura ikasleek naturarekin izango duten kontaktu errealean datza. Horren egoera emozional ezberdinak ekarriko ditu eta ez da desnaturalizatuko, esperientzia horren aisialdirako lagunduko duelako. Eta azkenik, hirugarren printzipioari dagokionez, natura-inguruko jarduerak duten barne logika garrantzitsua da. Bertan sortuko diren egoerak beharrezko kolaborazioa ekarriko du, eta beti hainbeste agertzen den lehiakortasun hori albo batera utziko du.

Horretarako, ikastetxea Arratia bailaran kokatu da, mendiz inguratutako inguru batean. Aukeratutako kirolak curriculumean ageri diren etapako helburu eta edukiak kontutan hartuta aukeratu dira. DBHko lehenengo eta bigarren mailetan Traila, hirugarren mailan Orienting-a eta laugarren mailan Mountain Bike kirolak aurkeztuko dira. Esan bezala, ingurua mendia izango denez, Aldalurren (2008) gida kontutan izan da. Egia da kirolak direla, baina UD hauetan ariketa fisiko moduan ikusiko ditugu, ez baita inoiz lehiaketa eran kodifikatutako saiorik proposatuko.

Aipatutako aukeraketa horren zergatia ere denbora librean edo aisian kokatzen da. Zentroa non kokatuta dagoen ikusita, ikasleen aisialdirako ekintza ezberdinak deskubritzen dira.

Metodologiari dagokionez, arazo egoeretan oinarritutako metodologia erabiliko da, hau da, hasieran ikasleari problema bat planteatuko zaio eta arazo horri konponbidea bilatu beharko dio. Problema hori erreal izango da, benetan existitzen dena. Irtenbidea bilatzeko, konpetentzietan oinarrituko gara, eta horien lorpenean. Bestalde, arestian aipatu diren esperientziaren eta abenturaren pedagogia aplikatu daitezke ere.

Planteatuko diren egoerak arestian aipatutako Blázquez (2016) bost elementuan kontuan izan planteatuko dira: osotasuna, esanguratsutasuna, funtzionaltasuna, autonomia eta inplikazioa kognitiboa. Horretarako arazoen konponbidea nabarmenduko da, hezkuntza bide berriak aukeratzeko behararekin (osotasuna). Bestalde, unitate didaktiko guztiak segida bezala planteatzen direnez, aurrekoan ikasitakoa hurrengorako erabilgarria izango da (esanguratsutasuna). Zentroaren kokapena ezagututa, ikasiko duten hori inguruan erabiltzeko aukera izango dute (funtzionaltasuna). Emango zaien materiala (mapak, iparrorrazak, etab.) haien kabuz ezagutu eta erabiltzeko aukera emango zaie (autonomia). Eta azkenik, erronka kognitiboak planteatuko dira arazo egoera aurkeztuko den momentutik, hots, UD bakoitzaren hasieratik.

Arazo egoeraren planteamendua UD bakoitzaren hasieran egingo da. UDaren izenburua galdera moduan ageriko da, ikasleari arazo egoera planteatzeko modua izango delarik. Jarraian problemaren testuingurua eta ataza ageriko dira. Ataza ikasleek UD jakin horrekin lortu beharko dutena izango denez, aspektu garrantzitsua izango da, beraz, UD bakoitzean azpimarratuta joango da zati hori.

Aipatzekoa da, gaur egun Eusko Jaurlaritzak (2017) ematen duen UDak egiteko gida kontuan hartu dela, eta bertako oinarritutako tauletan oinarritu garena. Adibide horiek ez dira taula batean agertzen, baina kasu honetarako UDrako informazio guztia taula batean sartuko da. Guzti honen helburua irakasle batek material hori hartuta saioak aurrera

eramateko kapaz izatea da. Aipatu beharra dago, UD guztiak errealak direla, hau da, testuinguru erreal batean kokatuak eta benetan egin daitezkeenak.

Arestian aipatu bezala, ageri den adibidea kontutan izan da, bertan ageri den informazio guztia tauletan sinplifikatuz. Lehenik eta behin, arazo egoerari buruz ematen duen informazio guztia gehiegizkoa izan daiteke, normalean irakasleak arazo-egoera ezagutuko duelako eta problema benetakoa izango delako. Bestalde, ebaluazioak momentuko testuinguruaren baitan egon behar du eta UD guztitik malgutasun gehien izan behar duen zatia izan beharko litzateke. Beraz, edozein irakasleak taula hori hartzean, nahi duen ebaluazio mota sartzeko aukera izango du. Kasu honetan, ebaluazioa lehenengo UDan bakarrik sartuko da, adibide gisa. UD hauetan sartu den zati berri bat diziplinartekotasuna izango litzateke. Irakasgai bakoitzak UDan zein leku izango lukeen azaltzen du.

UDen ebaluazioa Heziberrik planteatzen duen ebaluazioan oinarrituko da, Udak egiteko gidan (2017). Gogoratu beharra dago, ikasleak arazoa eta horren ataza ezagutzeaz aparte, ebaluazio prozedura ere nola emango den jakingo duela hasiera-hasieratik. 1. ERANSKINEAN ebaluazio osoa egiteko adibideak agertzen dira.

Hasteko, UDa hastean hasierako ebaluazio bat egongo da. Honen bitartez, ikasleek gaiarekiko duten jakintza, interesa eta eskarmetuaren berri izango dugu. Ebaluazio hori emateko bidea solasaldia eta galdetegia izango dira eta UD bakoitzaren lehenengo saioan egingo da. Esandakoaz aparte, hasierako ebaluazio horrek ekintzan eman daitezkeen genero ezberdintasunez ohartzea ekar dezake, saioak moldatu behar izan ezkeru informazio baliagarria izanik.

Bigarrenez, ebaluazio hezigarria eta prozesuala emango da UDa aurrera doan heinean. Honen helburua ikasleak egiten ari diren ikaskuntzaz jabetzea da, hau da, arazo egoerari irtenbidea bilatzeko

prozesuan egiten ari diren akatsak ikusi, aldaketak egin eta bestelako moldaketak egiteko momentua izango da. Kasu honetarako, koebaluazioa izango da egiteko modua, hau da, ikasleen arteko ebaluazioa (berdinen artekoa). Horretarako, sortuko dituzten mapak, ibilbideak, jolasak eta bestelakoak ebaluatuko dira. Honekin 236/2015 Dekretuak aipatzen duen bostgarren zehar kompetentzia lotzen da, hau da, norbera izaten ikasteko kompetentzia.

Azkenik, irakaslearen baitan egongo den amaierako ebaluazioa ageriko da. Hemen, ebaluazio irizpideen eta horien lorpen adierazpenen betetze maila neurtuko da eta horretarako UD didaktikoak baino lehenago dagoen atalean UD bakoitzean aukeratu diren irizpide eta lorpen adierazleak adierazi dira.

Aipatzekoa da, UD bat bukatzen denean, Heziberriren esanetan, ikasitakoaren orokortzea eta transferitzea gertatu behar dela. Hau da, ikasitakoak bizitza errealean zein funtzio eta erabilera izan dezakeen ikustea eta horiek aplikatzen jakitea. Gure kasuan, transferitzea egongo da, zentroaren inguruko mendietan orientatzen jakitea izango delarik.

3.1. DEKRETUAREN ERREFERENTZIAZKO ELEMENTUAK

Jarraian UD bakoitzak 236/2015 Dekretuarekin duen lotura adieraziko da. Horretarako, UD bakoitzerako aukeratu diren etapako helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak eta kompetentziak eta horien osagaiak agertuko dira. Esan bezala, hurrengo elementuak 236/2015 Dekretuan ageri direnak dira, baina UD bakoitzerako helburu, eduki eta lorpen adierazle espezifikokoak sortu dira. Gogoratu beharra dago, kompetentziak eta etapako helburuak finkoak direla, beraz, aldakorrak izango direnak edukiak, ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak izango dira.

Aipatzekoa da UD guztien arteko lotura bat dagoela, hau da, jarduera fisikoa ezberdina izango da, baina oinarria orientazioa eta

mendi ingurua izango dira. Horrek etapako helburuak berdintsuak izatea ahalbidetzen du, beraz, UD bakoitzean etapako helburuak zehaztuko diren arren, berdina izango dira lau Udetan. Edukiei dagokienez, hirugarren eduki multzoa gorputz-adierazpena eta komunikazio denez eta gai honekin loturarik ez duenez, ez da kontuan izango. Baina horrek ez du eduki multzo hori ez dela kurtsoan zehar beste UD batzuetan ez dela kontutan izango esan nahi.

Bestalde, Gorputz Hezkuntzan ikasgaiari gaudenez, konpetentzia motorra izango da diziplina baitako konpetentzia erabiliena, baina horrek ez du gainontzekoak kontutan hartu ez direla esan nahi. Horiek UDetan ageriko dira, diziplinartekotasuna deituriko atalean, konpetentzia jakin hori dagokion irakasgaira lotuta egonik.

LEHENENGO UNITATE DIDAKTIKOA

a) Zehar konpetentziak eta osagaiak

- I. Elkarbizitzarako konpetentzia: 2, 3 eta 4 osagaiak.**
- II. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia: 1, 2 eta 3 osagaiak.**

b) Etapako helburuak: 2, 3, 7, 8 eta 10.

c) Edukiak

1. Eduki Multzoa. Eduki komunak.

- **Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.**
- **Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).**
- **Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.**
- **Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta jaien bideragarritasuna aztertzea.**
- **Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.**
- **Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.**

2. Eduki Multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- **Gorputzaren jarrera egokiak zen diren jakitea eta jarrera horiek lantzea, bai ariketa fisikoa egitean, bai eguneroko bizitzan.**

- **Garbitasun, higiene, ordena, instalazio eta materialen gaineko arauak onartzea, betetzea eta arduraz erabiltzea.**
- **Egoneko bizitzak, elikatze desorekatuak, hidratazio desegokiak eta antzeko ohiturek osasunari dakarzkioten ondorioak.**

4. Eduki multzoa. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- **Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, eta horiek egitean, ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasun-arauak betetzea, orientazioko teknika oinarrizkoak lantzea eta logistika-baldintza oinarrizkoak zaintzea.**

d) Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak.

3. Osasuna hobetzeko helburua duten jarduera fisikoetan parte hartzea, hasierako maila hobetzen saiatuz.

- **Ohitura osasungarriak eta osasungarri ez direnak bereizten ditu.**
- **Ezagutu eta ulertu egiten du egoneko bizitzak osasunari dakarzkion ondorioak.**

6. Ekintza eraginkortasunez hautatzea, proposatu zaion banakako nahiz taldeko jolasa edo kirola kontuan hartuta.

- **Taldekideei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da, tolerantzia eta kiroltasuna erakusten ditu eta ikaste-prozesuaren garrantzia balioesten du, emaitzen ginetik.**
- **Gogoz parte hartzen du jarduera fisiko eta kirolean, arauak betetzen ditu eta egoki erabiltzen ditu materialak eta instalazioak.**

7. Orientazio-seinaleak bilatzea aurrez zehaztutako ibilbide batean.

- **Egoki identifikatzen ditu ibilbidea osatzeko seinaleak.**
- **Ahalik eta azkar eta seguruen osatzen du ibilbidea.**
- **Bete egiten ditu proposatutako jardueren arauak.**
- **Jarduerari dagozkion ingurune fisiko eta sozialak errespetatzen ditu.**
- **Jarduera segurtasunez egiteko material egokia identifikatzen eta hautatzen du.**

BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

a) Zehar konpetentziak eta osagaiak

I. Elkarbizitzarako konpetentzia: 2, 3 eta 4 osagaiak.

II. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia: 1, 2 eta 3 osagaiak.

b) Etapako helburuak: 2, 3, 7, 8 eta 10.

c) Edukiak

1. Eduki Multzoa. Eduki komunak.

- **Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.**
- **Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).**
- **Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.**
- **Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta jaien bideragarritasuna aztertzea.**
- **Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.**
- **Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.**

2. Eduki Multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- **Beroketa egitea, ohitura osasungarria eta lesioak prebenitzeko bitartekoa den aldetik.**
- **Oinarrizko ezaugarri fisikoak eta egoera fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura.**
- **Autonomia emozionala, norberaren emozioak kudeatzea eta jarduera horiek ariketa fisikoarekin eta osasunarekin duen lotura.**

4. Eduki multzoa. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- **Norberako dakienetik abiatuta, aurrera egitea euskal dantza, joko eta kirolean, lankidetzakulturala eta soziala bultzatuz.**
- **Jolas eta kirol banakako eta taldekoei (lehen mailan egindakoez bestekoei) dagozkien kirol-izaerako ekintzen eta keinuen trebetasun motorrak, gimnastikoak eta akrobatikoak ikastea, lantzea eta hobetzea, eta jarduera horiek egitean, arauak betetzea, norberaren buruaren kontrola indartzea, eta helburu komunak,**

tolerantzia eta kiroltasuna sustatzea, emaitzak lortzeko oinarri izan behar duten aldetik.

- **Ibilbideak egitea ingurune naturalean eta hiri-ingurunean, eta bide-ibiliak baliatzea jarduera horiek egiteko, segurtasuna-arauak beteta, naturaren eta hiri-ingurunearen erabilera egokia egin beharrean garrantziaz jabetuta, ingurune horiek errespetatuta eta aisia-jarduerak egiteko dakarkiguten aberastasuna balioetsita.**

d) Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak.

2. Osasunerako jarduera jakin batzuek zer onura dakartzaten ohartzea praktikaren bidez.

- **Ariketa fisikoa egitean, badaki bere ahalegina kontrolatzen.**
- **Intentsitateari eta iraupenari erreparatuta, jarduera motak identifikatzen ditu, eskura dituen informazio eta komunikazioko teknologien laguntzarekin.**

6. Mendi-ibilbideak egitea, autonomiaz, oinarrizko segurtasun arauak betez eta ingurunea zainduz.

- **Bere kabuz egiten ditu ibilaldiak.**
- **Bate egiten ditu oinarrizko segurtasun-neurriak.**
- **Bidean aurrera egitean, ez die kalterik egiten inguruneko landare eta animaliei, eta jaso egiten ditu ibilbidean sortzen dituen hondakinak.**

HIRUGARREN UNITATE DIDARTIKOA

a) Zehar kompetentziak eta osagaiak

I. Elkarbizitzarako kompetentzia: 2, 3 eta 4 osagaiak.

II. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia: 1, 2 eta 3 osagaiak.

b) Etapako helburuak: 2, 3, 7, 8 eta 10.

c) Edukiak

1. Eduki Multzoa. Eduki komunak.

- **Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.**
- **Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).**

- **Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.**
- **Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta jaien bideragarritasuna aztertzea.**
- **Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.**
- **Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.**

2. Eduki Multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- **Beroketa, lesioak prebenitu eta errendimendua handitzeko bitartekoa den aldetik.**
- **Jarduera fisikoetan eta kiroleetan gertzen diren lesioetan zer egin jakitea eta lan horietan trebatzea, ezarrita dauden protokoloen arabera.**

4. Eduki multzoa. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- **Eskola-eremuan jarduera ludikoak antolatu eta planifikatzeko jarraibide oinarrizkoak.**
- **Orientaziorako ibilbideak diseinatzea eta ibiltzea, naturan orientatzeko elementu oinarrizkoak baliatuta, mapak erabilia eta segurtasun-arauak beteta, orientazio-ibilbideak egiteko landa- eta hiru-inguruneetan.**

d) Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak.

8. Praktikatutako talde-kiroleko joko murriztuko egoerak ebaztea, lortutako ezagutza teknikoak eta taktikoak nahiz araei buruzkoak aplikatuz.

- **Erabaki egokiak hartzen ditu jolas mugatuetan, erabaki horiek betetzeko maila teknikoa alde batera utzita.**
- **Bere gain hartzen du talde-jardunean duen erantzukizun indibiduala, ezinbesteko irizten baitio helburu komuna iristeko.**

9. Oinarrizko orientazio-jarduerak prestatzea eta egitea, ahal dela natura-ingurunean, mapa bat erabiliz eta segurtasun-arauak betez.

- **Mapa baten laguntzarekin orientatzeko jarduerak osatzen ditu, eta, beharrezkoa baderitzo, bete orientazio-metodo batzuk erabiltzen ditu.**

- **Aintzat hartzen ditu segurtasun-neurriak (arropa eta oinetako egokiak erabiltzea, hidratatzea, mapak erabiltzea, etab.), batik bat jarduera naturan egiten baldin bada.**

LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

a) Zehar konpetentziak eta osagaiak

- I. Elkarbizitzarako konpetentzia: 2, 3 eta 4 osagaiak.**
- II. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia: 1, 2 eta 3 osagaiak.**

b) Etapako helburuak: 2, 3, 7, 8 eta 10.

c) Edukiak

1. Eduki Multzoa. Eduki komunak.

- **Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.**
- **Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).**
- **Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.**
- **Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta jaien bideragarritasuna aztertzea.**
- **Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.**
- **Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.**

2. Eduki Multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- **Beroketak egiteko jarraibideak betetzea eta ezaugarri fisikoak entrenatzeko sistema eta metodo oinarrizkoak erabiltzea.**
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren inguruko tresna oinarrizkoak erabiltzea ariketa fisikoa planifikatu, ebaluatu, erregistratu eta kontrolatzeko.**

4. Eduki multzoa. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

- **Aisia eta denbora libre antolatu eta planifikatzeko oinarrizko jarraibidea, ikasleen ezaugarri, interes eta beharrezanetara egokituak, aintzat hartuta horietan berebiziko garrantzia dutela jarduera fisikoek, adierazpenerako jarduerak eta kirolek.**
- **Jolas eta jarduera fisiko arautuak eta arautu gabeak egitea naturan.**

- **Ingurune gertukoan eta baliabide askotarikoetan ariketa fisikoak eta kirolak egiteko dauden aukerak ezagutzea.**

d) Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak.

7. Askotariko jarduerak egitea natura-ingurunean.

- **Natura-ingurunean jarduerak antolatzen laguntzen du eta jarduera horiek inpaktu apala izaten dute lurrian eta uretan.**
- **Natura-ingurunean antolatu diren jardueretan parte hartzen du.**
- **Badaki zer eragin duten jarduera fisiko eta kirol batzuek natura-ingurunean.**
- **Natura-ingurunean jardueretan erabiltzen diren teknikak erabiltzen ditu eta bete egiten ditu natura-ingurunean antolatzen diren jardueretan bete behar diren oinarrizko segurtasun-printzipioak.**

8. Askotariko jarduerak egitea hiri-ingurunean.

- **Taldeko eta banakako jarduerak egiten ditu hiri-ingurunean.**
- **Hiri-ingurunean jardueretan erabiltzen diren teknikak erabiltzen ditu eta bete egiten ditu hiri-ingurunean antolatzen diren jardueretan bete behar diren oinarrizko segurtasun-printzipioak.**

3.2. UNITATE DIDAKTIKOEN GARAPENA

DBH 1. MAILA	Trail ibilbide bat burutzeko gai izango gara?	4 SAIO (8 ordu)
<p>ARAZOA ETA TESTUINGURUA: Zentroaren ingurua mendi eta basoz inguratuta daukagunez, mendi ibilbideak egiten dituzten ikasleak asko zarete. Zuetako batzuk, inoiz mendi edo baso inguruan galduta edo desorientatuta ibili zaretela aitortu duzue, beraz, medio horietan orientatzeko moduak eta tresnak bilduko dira unitate didaktiko honetan, amaieran zuek <u>taldeka mendi-ibilbide bat era egokian burutu</u> ezazuen.</p>		
<p>OINARRIZKO KONPETENTZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioarako eta komunikazioa digitalerako konpetentzia. (1, 2 eta 4 saioetan) • Elkarbizitzarako konpetentzia. (2 eta 4 saioetan) <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konpetentzia motorra. • Matematikarako konpetentzia. (2 eta 4 saioak) • Teknologiarako konpetentzia. (3 eta 4 saioak) 		
<p>HELBURUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zentroaren natura-inguruak ezagutzea, aisialdirako ekintzak ezberdinak bertan gauzatzeko. • Natura-inguruan orientatzen jakiten hastea, aurretik emandako argibideak jarraituz. • Mendan mugitzeko mapak, iparrorratza, seinaleak eta bestelakoak irakurri eta manipulatzeko jakitea. <p>EDUKIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Natura-inguruan orientatzen jakitea. • Orientatzeko tresna ezberdinak erabiltzen ikastea. • Euskal Herriko mendi eta natura-inguruak ezagutzea. • Arratia Bailarako natura-inguruak ikastea. • Trail ibilbide bat burutzea. • Taldean aritzea, bata bestea lagunduz. <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Natura-ingurunean orientatzen daki. 		

- **Orientatzeko tresna ezberdinak (mapak, iparrorratza...) era egokian erabiltzeko gai da.**
- **Ibilbidea identifikatzen daki.**
- **Zentroaren inguruak ezagutzen ditu.**
- **Arauk betetzen ditu.**
- **Taldekideak laguntzen ditu.**
- **Ez ditu arriskuak hartzen, segurtasunez aritzen da.**

EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa: lehenengo saioan burutuko dugu. Horretarako, 1. eranskinean ageriko den galdetegia erabiliko da. Horretaz aparte, irakaslearen eta ikasleen arteko solasaldia egongo da. Solasaldi horren helburua, galdetegian jaso ez den informazioa ezagutzeko aukera paregabea izaten da, eta normalean, ikasleek gaiareriko duten jarrera eta interesaz ohartzeko aukera izaten da: gaiari buruz esaten dutena, kezak, galdera motak...

Ebaluazio hezigarria eta prozesuala: 3. saioaren amaieran egingo dugu. Horretarako, koebaluazio fitxa erabiliko da (1. eranskina). Bertan, ikasleek haien ikaskideak ebaluatuko dituzte. Galdeketa moduan emango da eta ez dute inoiz inori zenbakizko puntuaziorik jarriko.

Amaierako ebaluazioa: irakasleak amaieran ebaluazio irizpideetan eta lorpen adierazleetan oinarritutako ebaluazioa izango da. Hemen, zenbakia jarri beharko da. 1. eranskinean ageri den taula izango da ebaluazio hau egiteko modua.

JARDUEREN SEKUENTZIA: saio bakoitzean zer egingo den: jolasak, dinamikak, ebaluaketak, etab.

1. **SAIOA:** lehenengo saioa ikasleen aurre-ezagutzak zehazteko momentu egokia da. Gelan galdeketa eta solasaldia erabiliz (hasierako ebaluazioa) ikasleek gaiarekiko dakitena ezagutzea izango da hasierako pausoa, eranskinean dagoen galdetegiaren bitartez.

Honen ostean, lehenengo mapak erakusten hasiko gara, horietan orienta daitezten, pixkanaka gaiarekin kontatua izateko. Horretarako, institutu inguruko goitiko mapak erabilia, bertan jolasak egin daitezke: eskutaketak, harrapaketa jolas ezberdinak... Honekin batera gaiarekiko duten interesa, eskarmentua edota trebetasunak ikusiko dira ere, behaketaren bidez, bakoitzak duen jarreraz ohartu beharko gara.

2. **SAIOA: Proba ezberdinak batzen dituen Altxorraren Jolasa. Ingurune ezagun bateko mapa puzzle moduan eratu beharko dute (2. ERANSKINA). Proba ezberdinak burutzen doazen heinean (sudokuak, asmakizunak...), maparen pieza berri bat lortuko dute, horrela denak burutu arte. Kasu honetan, mapak lantzen ibiliko gara: eskalak, mapa mota ezberdinak, altuerak, etab.**
3. **SAIOA: Txangoa. Irakaslearekin, talde guztia batera. Arriskuez ohartu, zikinkeria bilatu eta batu, zelai arriskutsuak era egokian igaro, iparra eta hegoa bilatu. Saio honetan, strava, google maps, wikilok eta bestelako tresnak erabiltzen hasiko gara, irakaslearen laguntzarekin, horiek behar bezala erabiltzen ikasteko.**
4. **SAIOA: Ibilbidea burutu. Talde txikietan (4-5 ikasle). Taldekako mapa bat banatu eta ibilbidea modu egokian bilatu, orientazio seinaleak eta tresna ezberdinak erabiliz (mapak, iparrorratza...)**

DIZIPLINARTEKOTASUNA

- **GIZARTE ZIENTZIAK: mapak, ibilbideak, iparra, hegoa, mendebaldea eta ekialdea...**
- **NATUR ZIENTZIAK: klima, zelai ezberdinak, mendiak, basoak, flora eta fauna...**
- **MATEMATIKA: mapak, eskalak, distantziak, magnitudeak...**
- **INFORMATIKA: ibilbideak sortzeko programa informatikoak: Suunto movescount, Wikilok, Google maps, Strava...**

DBH 2. MAILA	Ba al dakigu trail ibilbide bat sortzen?	4 SAIO (8 ordu)
<p>ARAZOA ETA TESTUINGURUA: iazko kurtsoan aurretik diseinatutako trail ibilbide bat burutu genuen. Aurten herri mailan trail ibilbide bat sortzea erabaki da, eta udaletzetik ea guk sortu dezakegun galdetu dute. Ibilbide hori herriko edozein erabiltzailerentzat izango da, beraz, <u>mapa bat sortu</u> beharko duzue, beharrezko informazio guztiarekin.</p>		
<p>OINARRIZKO KONPETENTZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekimenerako eta espíritu ekintzailerako konpetentzia (2 eta 3 saioak) • Elkarbizitzarako konpetentzia. (2 eta 4 saioak) <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konpetentzia motorra. • Matematikarako konpetentzia. (2 saioa) • Teknologiarako konpetentzia. (2 saioa) 		
<p>HELBURUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Natura inguruan orientatzeko argibideak ematen jakitea. • Iparrorratza, mapak, GPSak edo bestelako tresnak orientatzeko helburuarekin erabiltzea. • Taldean aritzea, denon erritmo, ideia eta kritikak kontuan hartuz. • Natura-inguruan ager daitezkeen ezuste guztietaz ohartzea, horiek sahiesteko asmoz. <p>EDUKIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mendi-ibilbideak egitea. • Orientazio-seinaleak era egokian zehaztea. • IKTak (ordenagailuak, mobilak, GPSak...) orientatzeko erabiltzea. • Higiene-ohitura eta jarrera osasungarriak identifikatzea jarduera fisikoa egitean eta eguneroko bizitzan. • Natura-inguruan gerta daitezkeen arriskuez ohartzea, baita ekosistemarako kaltegarriak diren jarrerez ere. • Ibilbideak egitea ingurune naturalean eta hiri-ingurunean. • Aurrez zehaztutako segurtasun-arauak betetzea. • Natura-ingurunea errespetatzea. 		

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere kabuz egiten ditu ibilaldiak.
- Taldean arituz betetzen ditu ibilbideak.
- Elkarlanean aritzen da.
- Oinarrizko segurtasun-neurriak betetzen ditu.
- Bidean aurrera egitean, ez die kalterik egiten inguruneko landare eta animaliei.
- Ibilbidean sortzen diren hondakinak jasotzen ditu.
- Mapa bat sortzeko gai da.
- Goitiko bistaren bidez ibilbide bat marrazteko gai da.

EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa: lehenengo saioan burutuko dugu. Horretarako, 1. eranskinean ageriko den galdetegia erabiliko da. Horretaz aparte, irakaslearen eta ikasleen arteko solasaldia egongo da. Solasaldi horren helburua, galdetegian jaso ez den informazioa ezagutzeko aukera paregabea izaten da, eta normalean, ikasleek gaiareriko duten jarrera eta interesaz ohartzeko aukera izaten da: gaiari buruz esaten dutena, kexak, galdera motak...

Ebaluazio hezigarria eta prozesuala: 3. saioaren amaieran egingo dugu. Horretarako, koebaluazio fitxa erabiliko da (1. eranskina). Bertan, ikasleek haien ikaskideak ebaluatuko dituzte. Galdeketa moduan emango da eta ez dute inoiz inori zenbakizko puntuaziorik jarriko.

Amaierako ebaluazioa: irakasleak amaieran ebaluazio irizpideetan eta lorpen adierazleetan oinarritutako ebaluazioa izango da. Hemen, zenbakia jarri beharko da. 1. eranskinean ageri den taula izango da ebaluazio hau egiteko modua.

JARDUEREN SEKUENTZIA: saio bakoitzean zer egingo den: jolasak, dinamikak, ebaluaketak, etab.

1. **SAIOA:** lehenengo saioa ikasleen aurre-ezagutzak zehazteko momentu egokia da. Gelan galdeketa eta solasaldia erabiliz (hasierako ebaluazioa), ikasleek gaiarekiko dakitena ezagutzea izango da hasierako pausoa. Sortu duzue inoiz ibilbideren bat? Zer izan beharko genuke kontuan? Zeintzuk izan daitezke arriskuak) Honen ostean, natura inguruan ager daitezkeen seinale mota ezberdinak ikusten hasiko gara, horien esanahia ikasiz eta non aplikatu daitezkeen adieraziz.

2. **SAIOA:** hirunaka 2-3 kilometroko ibilbidea sortzea. Mapa baten zirkuitua marraztu beharko dute (Suunto Movescount-rekin), baita behar bezala burutzeko behar den informazioa bete ere: kontuz zubiarekin, alde honetan errepidea zeharkatu behar da, animaliak egon daitezke...
3. **SAIOA:** aurreko saioan sortutako ibilbideak beste hirukote batekin partekatu eta bete. Horiek ikastetxearen ingurukoak izango dira. Ibilbideak egitean agertu diren ezustek, informazio falta, akatsak eta bestelakoez ohartu beharko dira. Hori bukatzean, denak batera herri mailan ibilbidea jartzeko zirkuituaren diseinuarekin hasiko dira.
4. **SAIOA:** ikasleek sortutako ibilbidea betetzea. Bertan ager daitezkeen ezusteez ohartzeko: seinalizazio falta, arriskuak, zelai aldaketak, mapa ondo dagoen ohartu...

DIZIPLINARTEKOTASUNA

- **GIZARTE ZIENTZIAK:** mapak, ibilbideak, iparra, hegoa, mendebaldea eta ekialdea...
- **NATUR ZIENTZIAK:** klima, zelai ezberdinak, mendiak, basoak, flora eta fauna...
- **MATEMATIKA:** mapak, eskalak, distantziak, magnitudeak...
- **INFORMATIKA:** ibilbideak sortzeko programa informatikoak: Suunto movescount, Wikilok, Google maps, Strava...

DBH 3. MAILA	Orienting proba bat betetzen kapazak izango al gara?	4 SAIO (8 ordu)
<p>ARAZOA ETA TESTUINGURUA: Arratia inguruetakoko zentroetakoko Gorputz Hezkuntzako irakasleok orienting topaketa bat egiten dute urtero. Pasaden kurtsoan ibilbide, mapa eta bestelakoak errazak izan ziren, lehenengoa izan zelako. Aurten zaildu egingo zaigu da proba, orain arte eman duguna erabiliko dugu <u>orienting topaketan proba ahalik eta zehatzen betetzeko.</u></p>		
<p>OINARRIZKO KONPETENTZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioarako eta komunikazioa digitalerako konpetentzia. (1, 2 eta 4 saioetan) • Elkarbizitzarako konpetentzia. (2, 3 eta 4 saioetan) <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konpetentzia motorra. • Matematikarako konpetentzia. (4 saioak) • Teknologiarako konpetentzia. (3 eta 4 saioak) 		
<p>HELBURUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Natura inguruan orientatzen jakitea. • Iparrorratza, mapak, GPSak edo bestelako tresnak orientatzeko helburuarekin erabiltzea. • Taldean aritzea, denon erritmo, ideia eta kritikak kontuan hartuz. • Balizen esanahiak erabiltzen eta sortzen jakitea. <p>EDUKIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orientazio ibilbide eta probak betetzea. • Naturan orientatzeko oinarrizko elementuez baliatzea (balizak, mapak, pistak, etab.) • Segurtasun arauak betetzea. • Ekintza eraginkortasunez hautatzea, proposatu zaion banakako nahiz taldeko jolas aedo kirola kontuan hartuta. • Orientazio-seinaleak bilatzea aurrez zehaztutako ibilbide batean. • IKTak (ordenagailuak, mobilak, GPSak...) orientatzeko erabiltzea. 		

- **Higiene-ohitura eta jarrera osasungarriak identifikatzea jarduera fisikoa egitean eta eguneroko bizitzan.**
- **Orienting kirolean erabiltzen diren baliza ezberdinen esanahia jakitea.**

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- **Orientazio proba betetzen daki.**
- **Orientazio elementu ezberdinak erabiltzen dakizki.**
- **Segurtasun arauak betetzen ditu.**
- **Elkarlanean aritzen da.**
- **Orientazio-seinale ezberdinak ezagutzen ditu.**
- **Orientatzeko iparrorratza erabiltzen daki.**

EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa: lehenengo saioan burutuko dugu. Horretarako, 1. eranskinean ageriko den galdetegia erabiliko da. Horretaz aparte, irakaslearen eta ikasleen arteko solasaldia egongo da. Solasaldi horren helburua, galdetegian jaso ez den informazioa ezagutzeko aukera paregabea izaten da, eta normalean, ikasleek gaiareriko duten jarrera eta interesaz ohartzeko aukera izaten da: gaiari buruz esaten dutena, kexak, galdera motak...

Ebaluazio hezigarria eta prozesuala: 3. saioaren amaieran egingo dugu. Horretarako, koebaluazio fitxa erabiliko da (1. eranskina). Bertan, ikasleek haien ikaskideak ebaluatuko dituzte. Galdeketa moduan emango da eta ez dute inoiz inori zenbakizko puntuaziorik jarriko.

Amaierako ebaluazioa: irakasleak amaieran ebaluazio irizpideetan eta lorpen adierazleetan oinarritutako ebaluazioa izango da. Hemen, zenbakia jarri beharko da. 1. eranskinean ageri den taula izango da ebaluazio hau egiteko modua.

JARDUEREN SEKUENTZIA: saio bakoitzean zer egingo den: jolasak, dinamikak, ebaluaketak, etab.

1. **SAIOA:** lehenengo saioa ikasleen aurre-ezagutzak zehazteko momentu egokia da. Gelan galdeketa eta solasaldia erabiliz (hasierako ebaluazioa), ikasleek gaiarekiko dakitena ezagutzea izango da hasierako pausoa. Iaz orienting proba egin genuenez, aurtengo probari begira ikasleen zalantzak ezagutzeko erabiliko da: zer uste duzue sartu dezakegula iazkoa konplikatzeke? Gustokoa izan zen? Errezegia? Egin al duzue beste orienting probarik denbora honetan?

Honen ostean, lehenengo baliza mota ezberdinak erakusten hasiko gara, horietan orienta daitezen, pixkanaka gaiarekin kontatua izateko. Horretarako, institutu inguruan balizak jarri daitezke ikasleek zirkuitu txiki bat bete dezaten...

2. **SAIOA:** ikasleak taldetan jarriko dira eta aurreko saioan ezagututako balizak erreparatzen hasiko gara. Ikasleek binaka baliza horiek nahi duten tokian jarriko dituzte, beste bikote batek bilatu dezan eta balizak dioena bete dezaten.
3. **SAIOA:** iparrorratza erabiltzen ikasteko saioa. Hasieran irakasleak tresna hori erabiltzeko orientabideak emango ditu. Geroago, binaka, fitxa bat banatuko dio bikote bakoitzari. Fitxa horretan honelako orientabideak ageriko dira: 10 pausu iparrera, 2 ekialdera... azkenean iskutatutako kodea aurkitu arte. Horrela, kode guztiak bilatu beharko dituzte.
4. **SAIOA:** Orienting topaketa. 4 ikasleko taldeak egingo dira, ikasle bakoitza zentro ezberdinekoa izanik. Orienting proba orokor bat izango da; mapak, iparrorratzak, balizak irakurri, mendi inguruan mugitu eta bestelako trebetasunak erabili beharko dituzte.

DIZIPLINARTEKOTASUNA

- **GIZARTE ZIENTZIAK:** mapak, ibilbideak, iparra, hegoa, mendebaldea eta ekialdea...
- **NATUR ZIENTZIAK:** klima, zelai ezberdinak, mendiak, basoak, flora eta fauna...
- **MATEMATIKA:** mapak, eskalak, distantziak, magnitudeak...
- **INFORMATIKA:** ibilbideak sortzeko programa informatikoak: Suunto movescount, Wikilok, Google maps, Strava...

DBH 4. MAILA	MTB bizikletaz moldatzeko kapazak izango al gara?	4 SAIO (8 ordu)
<p>ARAZOA ETA TESTUINGURUA: Zentroaren inguruan hainbat ibilbide ditugu mendiko bizikletaz egiteko. Aspalditik zaudete klasean hori lantzeko eskatzen. Asko bizikletaz zatozte institutura, eta askok ez duzue kaskua ekartzen edota ez zarete behar bezala etortzen. Beraz, unitate didaktiko hau ez da bakarrik bilbide bat egiteko izango, <u>bizikleta gainean ager daitezkeen arriskuez ohartzeko ere erabiliko dugu.</u></p>		
<p>OINARRIZKO KONPETENTZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioarako eta komunikazioa digitalerako konpetentzia. • Elkarbizitzarako konpetentzia. (2, 3 eta 4 saioetan) <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Konpetentzia motorra. 		
<p>HELBURUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizikleta gainean eroan beharreko arropa eta tresna egokiak ezagutzea. • Bizikletan ibiltzean kontutan izan behar den guztiaz ohartzea. • Bai hiri edo natura inguruan behar bezala ibiltzen jakitea. • Bizikletak dituen parte ezberdinak ezagutzea. <p>EDUKIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizikletaz hiri-inguruan ibiltzea. • Bizikletaz natura-ingurunean aritzea. • Aisia eta denbora librea antolatzea eta planifikatzea, inguruneak ematen dituen aukerak eta bere ezaugarriak, interesak eta beharrak kontuan hartuta. • Higiene-ohitura eta jarrera osasungarriak identifikatzea jarduera fisikoa egitean eta eguneroko bizitzan. • Bizikleta gainean teknika izatea: aldapak igotzeko, jaisteko, abiadura nola hartu, etab. • Bidean aurki daitezkeen seinale ezberdinen esanahia daki. <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Seinale ezberdinak ezagutzen ditu. • Bizikletaren gainean ez ditu arriskuak hartzen. 		

- **Segurtasun arauak betetzen ditu, bai hiru-ingurunean, bai natura-ingurunean.**
- **Bizikleta baten zati ezberdinen izenak ezagutzen ditu.**
- **Bizikletaren gainean oinarrizko kontrolak ditu, bai hirian, bai natura ingurunean.**
- **Alboko ibiltariak errespetatzen ditu.**
- **Teknika ezberdinak dakizki: birak, balaztatzea, jauziak...**

EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa: lehenengo saioan burutuko dugu. Horretarako, 1. eranskinean ageriko den galdetegia erabiliko da. Horretaz aparte, irakaslearen eta ikasleen arteko solasaldia egongo da. Solasaldi horren helburua, galdetegian jaso ez den informazioa ezagutzeko aukera paregabea izaten da, eta normalean, ikasleek gaiareriko duten jarrera eta interesaz ohartzeko aukera izaten da: gaiari buruz esaten dutena, kezak, galdera motak...

Ebaluazio hezigarria eta prozesuala: 3. saioaren amaieran egingo dugu. Horretarako, koebaluazio fitxa erabiliko da (1. eranskina). Bertan, ikasleek haien ikaskideak ebaluatuko dituzte. Galdeketa moduan emango da eta ez dute inoiz inori zenbakizko puntuaziorik jarriko.

Amaierako ebaluazioa: irakasleak amaieran ebaluazio irizpideetan eta lorpen adierazleetan oinarritutako ebaluazioa izango da. Hemen, zenbakia jarri beharko da. 1. eranskinean ageri den taula izango da ebaluazio hau egiteko modua.

JARDUEREN SEKUENTZIA: saio bakoitzean zer egingo den: jolasak, dinamikak, ebaluaketak, etab.

1. **SAIOA:** lehenengo saioa ikasleen aurre-ezagutzak zehazteko momentu egokia da. Gelan galdeketa eta solasaldia erabiliz (hasierako ebaluazioa), ikasleek gaiarekiko dakitena ezagutzea izango da hasierako pausoa. Bizikletan ibiltzen zarete? Zenbat? Zein ingurutatik? Erabiltzen al duzue material egokia? Badakizkizue bizikleta baten parteak?
Honen ostean, bizikletaren parteak aztertzen hasiko gara: gurpila, hori nola aldatu, transmisioa, balazten erabilera... Bestalde, bidean aurki ditzakegun seinaleak lantzen eta ezagutzen hasiko gara.
2. **SAIOA:** bizikleta gainean teknika, patio inguruan. Bizikletarekin harremana hartzen pixkanaka-pixkanaka hasiko gara. Patioan zirkuitu bat diseina dezakegu, teknika ezberdinak batzen dituen (3. ERANSKINA): zig-zag, balaztatu, oreka mantendu (dinamikoa eta estatikoa...)

3. **SAIOA: txangoa bizikletaz herri barrutik. Ikasi ditugun bide-arauak betetzeko eta seinale eta keinuak erabiltzeko momentu aproposa: bidez aldatzeko eskua atera, zebra-bideak errespetatu, bidegorriak erabili...**
4. **SAIOA: txangoa natura-ingurunean. Arratia inguruan Gorbeia Parke Naturala aprobetxatuz, bertan dauden ibilbide, baso, bidezidor eta bestelakoak zeharkatu. Bertan, bigarren saioan praktikan jarri genuen teknika erabiltzeko uneak egongo dira, baita natura-inguruan ager daitezkeen arriskuak ohartzeko aukera izango da ere: zelai aldaketak, hezetasuna, aldapak eta bestelako arriskuak.**

DIZIPLINARTEKOTASUNA

- **GIZARTE ZIENTZIAK: mapak, bide-hezkuntza: seinaleak, semaforoak, argiak, keinuak...**

4. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA PERTSONALA

Hasiera hasieratik, lan osoan adierazten joan garen moduan, txostenetik atera den emaitza, hau da, unitate didaktikoak, errealitatera zuzenean eramateko intentsioarekin sortu dira. Horrek lana serioa eta fidagarria izatera behartzen du.

Bildu den teoria eta informazio guztiak natura-jarduerak gaur egun duten lekuaz ohartzeaz ahalbidetzen du. Pixkanaka-pixkanaka Euskal Autonomia Erkidekoko DBHko curriculumean mota horretako ekintzak garrantzia hartu dute, orainaldian edukietan agertu arte. Gaur egun indarrean dagoen 236/2015 DEKRETUA erabili da, beraz, unitate didaktikoen adibideak bertako informazio guztia erabilia sortuak izan dira.

Baina Eusko Jaurlaritzak ematen dituen unitate didaktikoen adibideen harira, bertan agertzen dena teoria hutsa da nire ustez, hau da, errealitatera eramateko pentsatu gabekoak. Unitate didaktiko bat sinplea izan behar da, baina sinpletasun horren barruan espezifikoa eta beharrezko informazioarekin bakarrik. Horregatik, lan honetan sortu diren unitate didaktikoak irakaslearen eta ikaslearen lekua kontutan hartu dira, beti esperientzia pertsonaletik abiatuz.

Horrekin Hezkuntza Saitetik hainbeste eskatzen den diziplinartekotasunaren arazoa dator. Irakasgai guztiak proiektu berean bat egitea eskatzen dute, baina curriculumak berak ez du hori egia bihurtzen uzten. Proiektu bat lantzean irakasgai ezberdinak bat etortzea ia ezinezkoa da, gaia agian ez delako momentu horretan lantzen, edota ez delako gainontzeko irakasgaien programazioarekin bat etortzen.

Bestalde, ia informazio iturri guztietan ematen diren unitate didaktikoen adibideak kirol arruntenak izaten dira, hots, badminton, saskibaloia, futbola, volleybola, etab. Kirol horien arau, jolasteko modu, zelai eta barne logika finkoak dituzte. Guztiz kontrakoa gertatzen da

natura inguruan garantzen diren jardueretan. Bertan ager daitekeen arriskua, orientazio-eza, zelai ezberdinak, etab. berezi egiten dute modalitate hau. Horregatik, hezkuntzarako gai horretan zentratutako unitate didaktikoak sortzea zaila izaten da.

Horretaz aparte, lan hau garatzeko izan ditudan arazoak ere aipatzea garrantzitsua da. Hamar mila hitzetan GrALa sartzea traba bat izan da hasieratik eta horrek, nire ustez, lana oraindik hobetzeke dagoela ekartzen du, txosten honetatik kanpo geratu den informazio guztiaz baliatzea lana sakonago ulertzea ekar zezakelako.

Bestalde, aurreko paragrafoan ageri den arazoarekin jarraituz, amaieran, horrek erreferentzia bibliografikoak gutxi izatea ekarri. Hasiera baten egindako informazio bilketaren ostean, hainbat izan ziren erabilitako medioak, baina, aipatu bezala, lanean aukeraketa bat egin beharra zegoen.

Bukatzeko, nahiz eta natura-jarduerak hezkuntzari begira sortzeko zaila izan, oso eroso sentitu naiz lan hau egiten, Gorputz Hezkuntzako irakaslea izanda, ez baitago lanerako material erabilgarria sortzeko modu hoberik.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Barrows, H.S. (1986). A taxonomy of problem-based learning methods. *Medical Education*, 20, 481-486.

Blázquez, D. (Ed.). (2016). *Métodos de enseñanza en educación física: Enfoques para la enseñanza de competencias*. Batzelona: Inde.

Norman, G.R., eta Schmidt, H.G. (1992). *The Psychological Basis of Problem-Based Learning: A Review of the Evidence. Academic Medicine*, 67(9), 557-565.

Pérez, R., Caballero, P. eta Jiménez, L. (2009). Evolución histórica de las actividades físicas en el medio natural con fines educativos. *Materiales para la Historia del Deporte*, 7. 59-76.

Eusko Jaurlaritzza. (2017). *Programazio didaktikoak prestatzeko gida: Oinarrizko Hezkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Fernández, M., García, J.N., De Caso, A., Fidalgo, R. eta Arias, O. (2006). *El aprendizaje basado en problemas: revisión de estudios empíricos internacionales. Revista de Educación*, 341, 397-418.

Aldalur, I. (2008). *Manual de legislación ambiental para el colectivo montañoso*. Donostia: Euskal Mendizale Federazioa.

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte-Consejo Superior de Deportes. (2017). *Anuario de estadísticas deportivas*. Hemendik: <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:72c0db21-8dde-4b37-97ed-f56e779583fb/anuario-de-estadisticas-deportivas-2017.pdf>

Parlebas, P. (2003). Un nuevo paradigma en educación física: los dominios de acción motriz. Hemen: J. P. Fuentes eta M. Bellido (Ed.). *La educación física en Europa y la calidad didáctica en las actividades físico-deportivas* (27-42 or.). Cáceres: Diputación Provincial-Institución cultural El Brocense.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016-01-15). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria, 2016(9). Hemendik: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.shtml>

6. ERANSKINAK

1. LEHENENGO ERANSKINA: EBALUAZIO TRESNAK

- 1. Hasierako ebaluazioa egiteko galdetegi honetaz aparte, hurrengo saioetan (lehenengoan batez ere) egingo diren ariketa eta ekintza ezberdinak ere ikasleen aurre-ezagutzez oartzeko erabili daitezke. Horietan duten jarrera, interesa, inplikazio maila, genero ezberdintasunak eta bestelako elementuak informazio oso baliagarria da.**

LEHENENGO UNITATE DIDAKTIKORAKO

- **Zer dakizu Trail-ari buruz? Zer uste duzu dela?**
 - **Komunikabideetan zer ikusten duzu horri buruz?**
 - **Institutua hori egiteko leku aproposa dela uste duzu?**
 - **Ibiltzen al zara menditik? Nondik? Norekin?**
 - **Badakizkizu zentro ingurutik mendi-ibilbideak?**
 - **1etik 5era zein da gai honi buruz duzun interesa?**
- 2. Ebaluazio hezigarria eta prozesuala egiteko adibidea. Koebaluazio-fitxa adibidea.**
 - **Nor ebaluatzen ari zara?**
 - **Nola ikusi duzu ibilbidearekiko izan duen jarrera?**
 - **Jarrera arriskutsuak izan ditu? Zeintzuk?**
 - **Orientazio seinaleak ezagutzen ditu? Zeintzuk ez?**
 - **Ondo orientatu da?**
 - **Iparrorratza erabiltzen daki?**
 - **Zertan hobetu dezake?**
 - **Laguntza eskaintzen du?**
 - **Eskuzabala da?**
 - **Zerbait esango zenioke?**

3. Amaierako ebaluaziorako taula. Lehenengo UDko ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak kontuan hartuta. Batzuk 236/2015 Dekretukoak dira, beste batzuk UDrako sortutako lorpen adierazle espezifikoak. Kolore urdinez ilunduta daudenak gaiarekin estuki lotuta doazenak dira.

Ikaslearen izen-abizenak:

LORPEN ADIERAZLEA	PUNTUAZIOA 1-5
Ohitura osasungarriak eta osasungarri ez direnak bereizten ditu.	
Taldekideak laguntzen ditu.	
Elkarlanean aritzen da.	
Tolerantzia eta kiroltasuna erakusten ditu.	
Natura-ingurunean orientatzen daki.	
Egoki identifikatzen ditu ibilbidea osatzeko seinaleak.	
Ahalik eta azkar eta seguruena osatzen du ibilbidea.	
Bete egiten ditu proposatutako jardueren arauak.	
Jarduerari dagozkio ingurune fisiko eta sozialak errespetatzen ditu.	
Jarduera segurtasunez egiteko material egokia identifikatzen eta hautatzen du.	
Orientatzeko tresna ezberdinak (mapak, iparrorratza...) era egokian erabiltzeko gai da.	
Ibilbidea identifikatzen daki.	
Zentroaren inguruak ezagutzen ditu.	

2. BIGARREN ERANKINA: Altxorraren jolaserako mapa-puzlerako adibidea.**Areatzako Udalaren Katastroa.**

3. HIRUGARREN ERANSKINA: bizikleta teknika lantzeko zirkuitua.

